

EREMUAK

dokumentu programatikoa

sarrera

euskal herriko testuinguru artistikoari buruz

Arte-sorkuntza garaikidearen eremua askotarikoa dela oinarri hartuta sortu da eremuak programa. Eta, orobat, oinarri hartu da testuinguru artistikoak sistemikoak direla, eta horietan ezinbestekoa dela tokiko testuinguruaren eta testuinguru nazionalen zein nazioartekoaren arteko harremana.

Jakinik testuinguruak ez direla soilik erabaki politikoen edo neurri administratiboen ondorioz sortzen, eta jakinik hainbat faktorek bat egiten dutela horien sorreran, programa honen helburua bestelakoa da, hain zuzen ere, Euskal Herrian arte garaikidea gauzatzeko testuinguruak bultzatzen, optimizatzen eta/edo hobetzen lagunduko duten ekimenak artikulatzea.

Horretarako, ezinbestekoa da jakitea gizarte garaikidean testuinguru artistikoa zer baldintza errealean existitzen den, eta orobat jabetzea zer arazo eta faktorek eragiten duten testuinguru horien garapenean eta optimizazioan. Ikuspegi sistemiko batek, honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste: "politika kulturala" eta funtzio publikoa kontzeptuei buruzko eztabaida; artearen eta kulturaren arteko bereizketa eta artikulazioa (artearen berezitasunak, kulturaren parte izanda ere; artearen kontzeptu antropologikoa eta diziplinari dagokion kontzeptua); antolaketaren alderdiei buruzkoa iritzia, eta beste testuinguruekiko (geografikoak, diziplinari dagozkionak, historikoak, kulturalak) harreman-puntuak eta elkarguneei buruzkoa; sormenaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa; ondasunaren kontzeptu garaikidearen azterketa, eta baita arteak balio-katean sortzaile gisa betetzen duen lekuaren azterketa ere (kontserbazioa, zaharberritzea, sorkuntza, esperientzia eta helaraztea); arte garaikidea gaur egungo gizartean hartzeko moduari buruz gogoeta egin behar da, eta baita arteak mass medietan duen lekuari buruz ere; arteak eta artistek, alderdi administratiboetatik eta fiskaletatik, zer egoera duten aztertu behar da; garaikidetasuna, oraina eta gaurkotasuna kontzeptuak aztertu behar dira berriro, etab.

eremuak **programa irekiak** ezin ditu alderdi horien guztien konplexutasuna modu orokorrean ulertu, eta are gutxiago, horiek guztiak konpondu; baina badu horiek guztiak egituratuko dituen sistema bat bultzatzea eta modu egitaratuan hartzea, ez bakarrik "horiei buruz jarduteko", baizik eta horiek "lantzeko" modu egokienak kontuan hartu eta bultzatzeko. Sentimen sistemiko hori eta bokazio ireki eta egiturazko hori eduki, helburu eta metodo bihurtzen da, aldi berean

aurkezpena

eremuak programa Eusko Jaurlaritzaren arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen alorreko politika kulturalaren jarduera-eremua inplementatzeko proposamen bat da, testuinguru garaikidea etengabe optimizatuko duen programa ireki bat eskaintzen duena.

eremuak Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Sustapenerako Zuzendaritzaren jardueren barruan sartzen da, eta Euskal Herrian arte garaikidearen eremu konplexua bateratuko duen begirada sistemikoaren alde jarduten duten prozesuak -testuinguruan kokatzeko prozesuak- abian jartzea eta sustatzea du helburu nagusia.

eremuak programak ez du Eusko Jaurlaritzaren sorkuntzarako eta zabalkunderako diru-laguntzen politika ordezkatzeko asmorik; aitzitik, laguntza-egitura berezia duten programa horiek ikuspegi estruktural edo sistemiko batekin osatu nahi ditu, bai gizartearen testuinguruan artearen testuinguru orokorraren ikuspegiarekin, bai artearen tokiko testuingurua artearen sistema globalaren testuinguruaren ikuspegiarekin.

eremuak programak sustatzen duen ikuspegiak Eusko Jaurlaritzak arte garaikidearen alorrean duen politika kulturalaren barneko aplikazioei eragiten die, eta, aldi berean, haien eraginpean dago; eta horrek bultzatzen gaitu martxan diren programak eta etorkizunean bultza litezkeenak berriro aztertzer. Ikuspegi konplexu horrek lagunduko digu artea eta haren jarduerak beste edozein sistema sozial gisa hartzen, baina garapen sozio- historikoan duen espezifikotasuna galdu gabe.

eremuak **programa ireki** bat da, alegia, ez diote eragiten lurraldearen, jaiotzaren, egilearen edo diziplinaren mugek; jarduera guztiak, jarduera horien oinarri diren eta horiek sustatzen dituzten jarrera eta diskurtso guztiak bere baitan hartuko dituen ikuspegi batentzako espazioa eskainiko du. Izaera hori, edo antolaera konplexu hori, sustatu behar dute, "intuizioz jasotako testuingurura" ondoen egokitzen den irudia, beti aldakorra, eduki nahi duten politika publikoek.

Izaera horrek indartu egiten du erantzukizun publikoak artearen espazio sozialean gauzatzen dituen programak a prioriko inolako mugarik gabe garatu behar direla oinarri hartzen duen ideia; interakzioari, prozesu errekurtsiboei, erabat zabalik egon behar dutela defendatzen duen ideia; era horretara baino ez baita lortuko produktua, aldi berean, produktore izatea.

Alegia, produktua eta haren eraginak beharrezkoak dira haren produkzioarako.

helburu orokorrak

eremuak programaren helburu nagusia Euskal Herrian arte garaikidearen testuingurua osatzen laguntzea da. Horretarako, **programa ireki** honek lehentasuna emango dio aurretik dauden azpiegiturak zein giza baliabideak optimizatzeari, Euskal Herrian testuinguru artistikoaren bikaintasunera iritsi ahal izateko; era horretara, alderdi lagungarriak bultzatuko dira, eta garapenari laguntzen ez dioten alderdi ahulak indartuko dira. Hori horrela izan dadin, jarduerak bultzatzen dituen eta kanpoko proiektuak hartzen dituen programa bihurtzen da eremuak; horretarako, etenik izango ez duen deialdia prestatuko du, eta bertan artearen sorkuntza garaikideari loturik dauden era guztietako egileak zein taldeak parte hartu ahal izango dute, bai langintza artistikoaren eremuan, bai interpretazioaren edo bitartekaritzaren eremuan.

eremuak programa ireki bat da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatua eta ekoiztua, eta harrera egoitzak kudeatua.

berariazko helburuak

bikaintasuna sustatzea, sorkuntza artistikoaren eremuan

Horretarako, ekoizpen-baldintzarik onenak bultzatuko dira artistentzat, eta handitu egingo dira, nabarmen, aukerak eta eskakizun-maila. Balio handiagoa emango zaie, beraz, beren sentiberatasun-mailagatik, sendotasunagatik, ondare artistikoaren denboraz haraindiko aberastasuna barneratzeko eta bateratzeko gaitasunagatik, baina baita originaltasunagatik eta begirada harrigarriak orientatzeko gaitasunagatik ere, nabarmentzekoak diren prozesu artistikoak.

bikaintasuna sustatzea, interpretazioaren eremuan

Horretarako, jardun artistikoak eztabaida orokorren egituran, testuinguru historikoan eta giza jakintzaren

sarean antolatzeke gai izango den testugintza eta edizio-proiektuak bultzatu nahi dira, edozein dela ere abiapuntuko diziplina (artearen historia, artearen antropologia, artearen soziologia, etab.); era horretara, artegintzaren testuingurua egituratuko da. Balio handiagoa emango zaie, beraz, beren sentiberatasunagatik, konplexutasunagatik eta aberastasunagatik, beren kongruentzia metodologikoagatik eta eztabaida partekatuek eta horien aldeko ekoizpen- eta banaketa-moduak nahasteko beren gaitasunagatik aipagarriak diren ikerketa-prozesuei.

bikaintasuna sustatzea, bitartekaritzaren eremuan

Horretarako, bitartekaritza-jarduerak, komisariotzako eta agentzia kulturalerako proiektuak bultzatu nahi dira, eta baita artelanak eta arte-gertakari garaikideak hartzeko baldintzarik onenak sustatu eta ahalbidetuko dituzten prestakuntzaren, irakaskuntzaren eta zabalkundearen alorreko zeharkako proiektuak ere. Balio handiagoa emango zaie, beraz, beren sentiberatasunagatik, konplexutasunagatik eta aberastasunagatik, beren kongruentzia metodologikoagatik eta kulturari eta sorburu eta helburu duen gizarteari esperientzia artistikoaren aberastasuna, konplexutasuna, balioa eta ekarpena (sentibera, emozionala, kontzeptuala, ondareari dagokiona) hainbat testuingurutan helarazteko beren gaitasunagatik aipagarriak diren proiektuei.

programa etengabea

Programak etenik gabea izan nahi du, hau da, ez du unean unekoa izan nahi. Horretarako, egitura problematiko gisa agertzen da -alderdi lagungarrien sare bat eskaintzeko-, proiektuek eta ekimenek bertan jardun dezaten. Kontua ez da diskurtso bat "ekoiztea", alderdi lagungarriei bide ematea baizik. Artearen sistemaren bikaintasuna eta autokudeaketa bultzatu nahi dira.

programa gauzatzeko baldintzak

batzordea

Edukiak egituratzeko, Batzorde batek osatuko du eremuak programa. Batzorde hori hiru kidek osatuko dute, eztabaida zein erabakietan hitza eta botoa izango dutenak: arte garaikidearen alorreko kritikan, komisariotzan, artearen teorian eta jardunean diharduten hiru ordezkari. Batzordea burujabea izango da eremuak programaren edizio bakoitzean problematika, helburu edo estrategia bultzatuko diren adierazteko, eta horrez gainera, bere ardurak izango da dagokion proposamenak hautatzea; edonola ere, hautaketa hori behar bezala arrazoituko du Programa irekiaren eremu orokorraren baitan.

programaren prozesu-izaera

eremuak programa etengabe ebaluatuko du Batzordeak; era horretara, zehaztutako helburuak ezin hobeto betetzen direla ziurtatzeko, beharrezko aldaketak erantsi ahal izango zaizkio programari.

lurralde-eremua: tokiko testuingurutik, tokiko testuinguruan edo tokiko testuinguruarentzat sortutako proiektuak

Euskal Herrian testuinguru artistikoa garatzeko helburura iristeko, ez zaie lurralde geografikoan kokatutako proposamen eta jardueri bakarrik arreta jarri behar, ezta ere lurralde historikoan sortutako edo errolatutako eragileek egindako proposamenei bakarrik. eremuak programak sustatzen duen sentiberatasun sistemikoa kontuan hartuta, oinarritzat hartzen da tokiko testuingurua garatzeko testuinguru orokorretan txertatzea hura.

Horregatik, eremuak programak Euskal Herritik, Euskal Herriarengan edo Euskal Herriarentzat proiektuak eta proposamenak sustatzeko aukera eskaintzen du, eta proposamen horiek beste eskualde edo naziotatik etorritako pertsonen edo taldeen eginak izan daitezke. Edonola ere, modu berezian baloratuko dira Euskal Herrian bertan sortutako proposamenak.

programan sartutako jarduera motak

- a. Kanpoko jardueren eta proposamenen programa, **programa jarraituaren** arabera edozein egilek edo taldek eskatua. Proposamenek aurreikusi beharko dute egingarriak diren, bai formulazioari dagokionez bai kokalekuari dagokionez, halakorik beharko balute. Proposamenak espazio fisikoetan ez ezik, sarean, espazio birtualetan edo produkzioetan eta edizioetan kokatu ahal izango dira, eta baita horien arteko konbinazioetan ere. Horrez gainera, une jakinetan, programetan, modu jarraituan edo hainbat alditan (gehienera ere bi urteko epean) burutu ahal izango dira.
- b. Programa-jarduerak, programak berak sustatuak (mintegiak, argitalpenak, txostenak, etab.), eta **emaitzak ebaluatzeko eta** horien dibulgazioko jarduerak, etab.).**berri emateko** jarduerak (argitalpenak,

eremuak

